

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALA

Web-gune txiki bat sortuko dugu non gure txiparen informazio guztia emango dugun. Gainera telefono bat utziko dugu web-gunean, bezeroek edo kontsumitzaileek edozein duda izango balute, guri komunikatzeko eta beraiei azaltzeko aukera izango lukete eta.

Horretaz gain, hilabetean behin hitzaldi moduko bat egingo dugu gure produktuan interesa duten jendearekin, horrela dauzkaten zalantzak edo galderak erantzungo ditugu eta nola funtzionatzen duen erakusteko erakusketa txiki bat egingo dugu. Chip-a nola jarriko den, mugikorrera datuak iristen direnean nola jaso eta interpretatu behar diren eta bestelako zalantzak argituko ditugu. Hitzaldi hauen helburua, bezeroarekiko gertutasuna lortzea da, gehien bat adindua den jendeari zuzendua dago. Hein batean, gure webgunean azalpen guztiak eskuragarri dauden arren, beharbada adinduagoa den jendea arazoak izango lituzke zalantza guztiak argitzeko. Gure produktuaren fidagarritasuna eta segurtasuna adieraztea ezinbestekoa dela uste dugu.